

Kontzilio pastoralara

naren adierazgarriak nagusien eta nabarmenak hartzen da teologiak kontzilio ekumenikoa; baita Elizaren eskumen nagusikotzat eta irakasbidezkoetan hutsezinezkotzat, fedezko egiak aitortu eta definitu nahi dituzte. Apezpikuekin batera beste *elizgizonen batzuk nahiz *laikoren batzuk esku hartu ohi dute kontzilioan era eta eskubide ezberdinez. Ik. Hutsezin(tasun)a; Apezpikuen kolegiatasuna.

Eliza Katolikoak 21 kontzilio ezagutzen ditu ekumenikotzat:

Nizeakoa (325. urtean)
Konstantinopoliko aurrena (381)
Efesokoa (431)
Kaltzedoniakoa (451)
Konstantinopoliko bigarrena (553)
Konstantinopoliko hirugarrena (680)
Nizeako bigarrena (787)
Konstantinopoliko laugarrena (869-870)
Laterango aurrena (1123)
Laterango bigarrena (1139)
Laterango hirugarrena (1179)
Laterango laugarrena (1215)
Lyongo aurrena (1245)
Lyongo bigarrena (1274)
Vienne-koa (1311)
Konstantzakoa (1414-1418)
Basileakoa (1431)
Laterango bostgarrena (1512-1517)
Trentokoa (1545-1563)
Vatikanoko aurrena (1869-1870)
Vatikanoko bigarrena (1962-1965)

Guztietan garrantzizkoentzat lehen zortzi kontzilioak hartzen dira, artean Elizaren zisma nagusia (katolikoan eta ortodoxoen artekoa) gertatu gabe zegoenekoak. Eliza Ortodoxoak lehen zazpi kontzilioak bakarrik ezagutzen ditu ekumenikotzat.

Kontzilioa hitza erabili ohi dute era berean, *Sangha budistaren batzarre nagusi eta orokorra izendatzeko. Buda hil ondoko lehen bi kontzilioak oso garrantzizkoak izan ziren *budismoaren gerorako.

Ik. Eliza; Aita santua; Batzarrea.

Kontzilio pastoralara

Horrela izendatzen da, eskualderen edo lurralderen bateko Eliza partikularraren edo zenbait Eliza partikularren arteko batzarrea, kristau-bizierazko eta ekintzazko gaiak aztertu eta erabakitzeko. *Apezpikuez gain, *apaizen eta kristau soilen ordezkariak esku hartu ohi dute horrelakoetan. Entzutetsua izan zen Holandako kontzilio pastoralara, 70. hamarrurtealdian.

Ik. Eliza partikularra; Sinodoa; Kontzilioa.

Kopioia

Ik. Ziborioa.

Koptoa, eliza

Ik. Eliza koptoa.

Korana

Musulmanen idazteuna: azkenburuko errebelazioa dauka, haien ustez. 114 kapitulu edo *sura-tan banatuta dago, luzeraren arabera ordenaturik, luzeenetatik hasita. Sarrerako sura gorespen-kantu mota ederra da, bide zuzenari jarraitzeko aholku-eskaera eta guzti. Sura guztiak, bederatzigarrena ezik, hitz hauekin hasten dira: "Allah-ren, Errukiorraren, Bihozberaren, izenean".

Errezitazioa adierazten du arabieraz Korana hitzak. Benetako arte-mota da errezitazio hori, eta aldzika errezitalarien lehia-keta nazioartekoak antolatu ohi dituzte. Hogeitamar edo hirurogei zatitan banaturik dago horretarako Korana. Hau irakurtzeko tankera ez da erabakarra izaten, hasiera hartan ez bait zituzten bokalak idatzi eta kontsonante batzu ere nahasi egin zituzten. Hala ere, eta --Utman *kalifak agindurik-- behin-betiko idazkera egin aurretik Koranak beste hainbat izan zituen arren, ez dago zalantzan jartzetik Mahomet (Mahoma) beraren irakatsi jatorrikoak dauzkala Koranak. Hiz-lau erritmiko ederrez idatzita dago.

Literatur balioari begiratzuz, mundu osoko literaturaren gailurreko obratzat daukate Korana musulmanek. Beraien ustez, literaturako jeinu handienek lankidetzan liburu bat idatziko balute ere, inoiz ez lirakeke Koranaren edertasuna eta bikaintasuna ematera iritsiko. Benetako miraritzat jotzen dute musulmanek Koranaren literatur edertasuna; kontutan izanik, batez ere, eskolagabea omen zela Mahomet eta ez omen zekiela ez irakurtzen ez idazten. Musulmanaren ustez, Korana ez da liburu iradokia soilik, kristauentzat Biblia den bezala, eta bai hitzez hitz emana. Lurreko Korana zerukoaren kopia jatorra omen da, mundua baino lehen sortu eta Gabriel *aingeruak Mahometi irakurri omen zionarena, alegia.

Ez dago musulmanik honelako esaldirik onartuko lukeenik: "Mahometek konposatu egin zuen Korana"; "Halako eta halako iturri ahokoz edo idatzietatik, bereziki judu eta kristau-idatzietatik dago Korana". Arabieraz errebelatua omen da Korana, eta ez du inolako itzulpenik onartzen; horko ideiak itzul daitezke bakar-bakarrik, ez hitzak. Luzaroan debekaturik egon zen Koranaren itzulpenik egitea; geroago onartu zuten, baina testuaren lerro artean bakarrik emanez itzulpena.

Koranaren edukinak ez darraikio inolako ordena kronologikori ez logikori. Orokorki harturik, bitan banatzen dute kritikariak Korana: lehen aldiko kapituluak, Medina-koak alegia, poetikoagoak, grinaz eta tolesgabetasunez beterikoak, batetik; eta bigarren aldikoak, Mekka-koak, koloregabeagoak eta errepikapen askokoak.

Korana ez da erlijio-liburua soilik; badu balio legala ere eta, beraz, zuzenbide-iturria da.

Musulman-fededunarentzat kondaira santuko, *otoitzeko, *gogarteko eta gida moraleko liburua da.

Kultura arabiarraren abiaburua gertatu zen Korana.

Adierabiko pasarte ilunak badaude Koranean, testuak berak beste pasarteren batean --iluna hau ere-- aitortzen duenez.

Korana interpretatu edo adierazi beharraz gramatika- eta filologi zientzia lora-raziz zuten, baita astronomia, jurisprudentzia eta horrelako zenbait jakintza sustatu ere.

Ik. Islamismoa; Liburu-erlijioa; Agerkundera; Liburu santuak.

José Pérez Remón
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Korbana

Sin.: Jauretzeko altxorra

Juduen artean *botuaren ondorioz Jainkoari eskainitako zerbait, beharrezkoa nahiz borondatezkoa, adierazteko Biblian erabiltzen den hitza. *Opari gisa jauretxean utzita gelditzen zela uste zuten --hortik, "jauretzeko altxorra"--, eta ez zeukaten horretaz balliatzerik.

Korua

1. Buruntza. Buruko koroak edo buruntzak funtsean garaipena eta burutzapena adierazten ditu. Antzinatean, lehiaketetan edo gerran irabazle ateratzen zenari jartzen zioten.

Kristautasunean, betiko⁹ bitzta lortzea adierazteko erabiltzen da; horregatik *santuen burutzapena eta bereziki *martiriaren garaipena adierazten du.

Korua erregeraren sinboloa ere bada. Horregatik Kristo, errege eta jaun berpiztua eta zeruratua, eta Ama Birjina, zeruko erregina gisa, irudikatzen dira buruan koroa dutela.

Arantzazko koroak, berriz, Jesusen nekaldia adierazten du. Ik. Jaunaren nekaldia.

2. Sin.: Tontsura. Ik. Tontsura, 1.

Koroapena, Ama Birjinaren

Ik. Ama Birjinaren koroapena.

Korporala

Erritmo mendebaldirrean, *eukaristia ospatzeko *aldare gainean jarri ohi den lihozko zapi karratua; *kaliza eta patena horren gainean jartzen dira. Jatorriz, Eliza ekialdetarrean eileton izeneko setazko zapiak betetzen duen eginkizun berbera betetzen zuten korporalak: hots, kaliza eta patena estaltzeko ere balio zuten.

Ik. Antimension.

Korua

1. Katedraletan, *klerikoentzat jarlekuak dauden parteak. *Aldare-aldean nahiz *nabearen erdian aurkitu ohi da.

2. Elizetan orokorki, kantariantzako leku bereziari deritza horrela; atzealdeko galeria izan daiteke ala aldare-aldean egon. Era berean, *elizkizunetako kantari-taldeari berari ere korua edo schola deritza.

3. Aingeru ordena bakoitzaren beste izena: Aingeruen korua. Ik. Aingeruak.

Kosmogonia

Erlijioen historian eta bereziki *mitologian munduaren sorrera edo jatorria azaltzeko *mitoa deitzen da horrela. Mito guztien oinarrian--edo egon ohi da kosmogoniarena.

Ik. Kosmosa; Kreazioa.

Kosmosa

Unibertso ordenatu eta harmonikoaren ikuskera adierazten du, *anabasa gaingidituz eratu dena. *Kosmogonietan, baita kreazio-kondairetan ere, agertzen da anabasaren kontrako borroka kosmikoa. Bibliako kreazio-kondairan hasierako anabasa aipatzen bada ere, Jainkoak kosmosa eratzeke ez du borrokarik egiten; alderantziz bere *ahalguztiarekin eta hitz hutsaz balliatuz sortzen eta eratzen du *mundua. Ik. Kreazioa; Izadiala.

Txinako munduikuskera filosofiko-erlijiozkoan Yin-Yang bi printzipioen bidez eratzten da kosmoseko erreallitate kontrakoan arteko ordena. Bien aurretik eta funtsean dago, ordea, Dao (=bidea).

Makrokosmosaren eta mikrokosmosaren, bien ordena--printzipioak dira yin-yang-ak. Unibertsoan eta izaki guztietan gertatzen diren eta ihardunean diharduten printzipio polarak dira: eragilea bata, jasalea bestea. Elkarrekiko tirabiran eta batasunean, gauza